BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3514

AGINDUA, 2013ko uztailaren 23koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, Armando Llanos Ortiz de Landaluce jauna Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko kide izendatzen da.

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen V. Tituluak Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseilua arautzen du, Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 14. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Goian aipatutako arauen arabera, Arabako Batzar Nagusiek 2013ko uztailaren 15eko bilkuran Armando Llanos Ortiz de Landaluce jauna izendatu dute Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko kide.

Horrenbestez, eta otsaileko 25eko 3/2004 Legeak 73.2 artikuluan xedatutakoarekin bat –hor ezartzen baita gizarte-interesen ordezkariak unibertsitateen arloan eskumena duen sailburuaren agindu bidez izendatuko direla–, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Arabako Batzar Nagusiek aukeratutako Armando Llanos Ortiz de Landaluce jauna izendatzea Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluko kide.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 73.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 23a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.